

8. GAIA. ASEGURU-ERAKUNDEAK ETA HAIEN ERAGIKETAK

(ASEGURU-PRODUKTUAK ETA –ZERBITZUAK)

1. Arriskua

Eguneroko bizitzan, sarritan, aurre egiten diogu desiragarria ez den zerbait izateko posibilitateari. Horrek guretzat ondorio negatiboak ditu, eta, esaten duguna da *zerbait hori* gertatzeko aukera edo arriskua dagoela. Adibidez, eskiatzera bagoaz, erortzeko arriskua daukagu; ezagutzen ez dugun hiri batean galtzeko arriskua, istripu bat izateko arriskua, etab.

Aseguruen munduan, **arriskua** gertaera bat gertatzeko probabilitatea da, ekonomikoki konpentsa daitekeen kaltea edo galera sortzen duena.

Arriskua aseguragarria izan dadin, ezaugarri hauek eduki behar ditu:

Zalantzarria (dudoso) edo ausazkoa (aleatorio). Gertakari zalantzarria (dudoso) edo ausazkoa (aleatorio) izan behar du, hots, gerta daiteke edo ez. Beste batzuetan, ziur jakiten dugu jazoko dela, baina ez dakigu noiz. Adibidez, ezin dugu jakin denda batean lapurreta egingo duten ala ez (ez ziurra/zalantzarria); badakigu pertsona bat hilko dela, baina ez dakigu noiz (ausazkoa(aleatorio)).

Posiblea. Gertaera hori jazotzeko posibilitatea dago. Ez dago arriskurik, jazotzeko posibilitaterik ez badago. Adibidea: Bilbon ez dago sumendi baten erupzioa izateko arriskurik.

Ustekabekoa (inesperado) edo saihetsezina (inevitable). Halabeharrez sortutako gertakaria izan behar da, eta ez asegurudunaren esku-hartzeak sortua. Gainera, asegurudunak ahal duen guztia egin beharko du gerta ez dadin. Adibidez, etxeko asegurua egin badut lapurretatik babesteko, ezin dezaket beti etxeko atea irekita utzi.

Ekonomikoki baliozta daitekeena. Arriskua dirutan balioztatu ahal izatea.

Legezkoa. Arriskuak ez du legez kontrakoa izan behar edo onartutako moralaren aurkakoa.

Zehatza. Aseguru-erakundeak arriskua aztertu behar du bere gain hartu aurretik. Adibidez, X etxebizitzako lapurreta-arriskuaren aseguratzeko, etxebizitza horren metroak eta helbidea ezagutu behar ditu.

2. Aseguru-kontratua

Aseguru-kontratua kontratu bat da; aseguratzaileak (aseguradora), ezbeharra (siniestro) gertatuz gero, beste aldeari –asegurudunari (asegurado)– kalte-ordaina emateko konpromisoa hartzen du, trukean prima bat kobratuta.

Aseguru-kontratu batek ezaugarri hauek ditu:

- **Idatziz** egiten da beti. Idatzizko agiria **poliza** deitzen da, eta bertan kontratuaren ezaugarriak islatzen dira.
- Alderdien **adostasuna** behar da, asegurua egiten duenarena eta asegurudunarena.
- **Aldebiko kontratua** Alderdi biak, aseguratzaileak eta asegurudunak zerbaiterako konpromisoa hartzen dute.
- Aseguratzaileak eta asegurudunak **konpromiso ekonomikoa** dute.

- Alderdien aldetik **fedea ona** eskatzen du.

3. Aseguru-kontratuaren elementu pertsonalak

Aseguratzaila (asegurador). Bermatutako arriskuaren ondorioz, sortutako kalteak ekonomikoki konpentsatzeko erantzukizuna hartuko duen enpresa da.

Aseguruduna (asegurado). Aseguru-erakundearekin asegurua kontratatzen duen pertsona da, aseguru-kontratuan jasotako baldintzetan babesa izango duena.

Aseguru-hartzailea (tomador del seguro). Kontratua sinatzen duen pertsona da eta aseguru-primak ordainduko dituena. Sarritan, aseguru-hartzailea eta aseguruduna pertsona bera izaten dira; beste batzuetan, berriz, ez. Adibidez, guraso batek semearen edo alabaren auto-asegurua egiten duenean.

Onuraduna (beneficiario). Asegurua kobratuko duen pertsona da, hots, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea duena, aseguru-hartzaileak izendatutakoa. Adibidez, bizitza-aseguruaren onuraduna. Aseguru-hartzailea eta onuraduna pertsona bera izan daitezke; adibidez, nire etxebizitza lapurretatik babesten badut, lapurtzen badidate onuraduna izango naiz.

4. Aseguru-kontratuaren elementu materialak

Arriskua (riesgo). Aseguru-kontratu bat egin ahal izateko kaltea eragin dezakeen edo galerak sor ditzakeen gertakariren bat jasotzeko arriskua egon behar da. Aseguru-kontratua egitera aseguru-erakundera joaten garenean, gertakari jakinek sor ditzaketen ondorio kaltegarriak ekiditeko egiten dugu.

Prima. Aseguru-hartzaileak aseguru-erakundeari ordaintzen dion zenbatekoa da, eta, ezbeharririk gertatuz gero, kalte-ordaina kobratzea ahalbidetuko dio.

Aseguru-hartzaileak prima ordaintzen ez badu hilabete baino epe luzeagoan, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea eten egiten da.

Kasu batzuetan, prima behin bakarrik ordaintzen da, beste batzuetan, berriz, aldizkako ordainketa egiten da.

Ezbeharra (siniestro). Polizan aurreikusitako kalteak sortzen dituen gertakaria da, gertakari horrek arriskua gauzatzen baitu. Kalteak erabatekoak izan daitezke edo zati batean sortutakoak. Adibidez, istripu batean auto bat guztiz hondatzen bada, esaten da **erabateko hondamena (siniestro total)** dela.

Kalte-ordaina (indemnización). Aseguru-erakundeak onuradunari (beneficiario) ordaindu behar dion zenbatekoa da, poliza bidez babestutako ezbeharra gertatzean. Kalte-ordainaren zenbatekoa polizan ezartzen da, baina batzuetan beharrezkoa da aditu batek kaltea ekonomikoki ebaluatzea, hau peritu (perito) batek egiten du.

5. Agiriak

Aseguru-eskaera. Aseguruduna (asegurado) izango denak agiri bat beteko du; agiri horrek haren datuak edukiko ditu, eta bertan aseguratu nahi den arriskua deskribatuko da. Agiri horri esker, aseguru-erakundeak behar duen informazioa bilduko du. Ikertu ondoren, eskatzaileari aseguru bat

eskainiko dio, beharrezkoak diren baldintzekin eta estaldurekin (coberturas). Aseguru-eskaerak ez ditu aseguratzailerak eta eskatzailea lotzen (la solicitud de seguro no vincula al asegurador con el solicitante.).

Aseguru-proposamena. Aseguru-erakundeak aseguru-hartzaileari (tomador del seguro) aurkeztzen dion agiria da; aseguratuaren baldintza ekonomikoak eta estaldurak (coberturas) finkatzen dira. Proposamena aztertu ondoren hartuko du erabakia eskatzaileak; onartuz gero, kontratua gauzatu egingo da eta, onartzen ez badu, uko egingo dio. Aseguru-proposamenak, aseguru-eskaerak ez bezala, aseguratzailerak lotzen du.

Poliza. Agiri honek egiaztatzen du bi alderdiren arteko **aseguru-kontratu** bat existitzen dela. Polizan kontratuaren ezaugarriak eta baldintzak islatuta gelditzen dira. Aseguru-erakundearen eta aseguru-hartzailearen sinadurak eduki behar ditu.

Poliza batek hainbat baldintza eduki ditzake:

- **Baldintza orokorrak:** berdinak izaten dira asegurudun guztientzat arrisku beraren aurrean.
- **Baldintza partikularrak:** kontratu horretan beren beregi (expresamente) jartzen direnak (beste kontratuetatik bereizten direnak).
- **Baldintza bereziak:** baldintza orokorrak aldatzen dituztenak; adibidez, bitxi-saltzaile baten autorako arrisku orotarako asegurua.

6. Alderdien betebeharrak

Aseguru-polizan agertzen diren alderdien betebeharrak honakoak dira:

a) Asegurudunaren betebeharrak: (obligaciones del asegurado)

- Aseguratuko den arriskuaren deklarazio zehatza egin beharko du, arriskuaren balio ekonomiko erreala adieraziz.
- Adostutako primaren ordainketa. Kontratuan agertzen dira primen zenbatekoak eta ordainketa-datak. Primak epemugan ordaindu beharko ditu kontratugileak (contratante).
- Aseguru-erakundeari ezbeharren (siniestros) berri eman beharko dio. Aseguruetako polizetako klausulek ezartzen dituzte epeak, ezbeharren berri emateko eta ezbeharra zer egoeratan sortu den zehazteko.

b) Aseguratzaileraren betebeharrak: (obligaciones del asegurador)

- Kalte-ordainen (indemnizaciones) ordainketa. Aseguratzailerak betebeharra dauka ezbeharren (siniestro) sortutako kaltea ordaintzeko.
- Ezbeharri (siniestro) uko (renunciar) eginez gero, espresuki jakinarazi beharko dio asegurudunari. Uko egitea idatziz adierazi beharko dio asegurudunari.

ARIKETAK

1. Aseguru-hartzaileak: (tomadores del seguro)

- a) Kontratuan sorburua duten arriskuak onartzen ditu.** (acepta los riesgos derivados del contrato)
- b) Ezbeharrik gertatuz gero, kalte-ordainak jasoko ditu.** (percibirá las indemnizaciones en caso de siniestro)
- c) Primak ordaintzeko konpromisoa hartzen du.** (se compromete al pago de las primas)
- d) Aseguratzen diren arriskuak jasaten (soportar) ditu.** (soporta los riesgos que ese aseguran)

2. Aseguratzaillearen betebeharra da: (es la obligación del asegurador)

- a) Ezbeharrik gertatuz gero, kalte-ordaina ordaintzea.**
- b) Aseguru-kontratuaren prima ordaintzea.**
- c) Onuradunari poliza ordaintzea.**
- d) Aseguru-hartzaileari kontratatutako zenbatekoa ordaintzea.**

3. Prima ordaintzeko betebeharra:

- a) Asegurudunak dauka aseguru-hartzailearekin.**
- b) Asegurudunak dauka aseguratzaillearekin.**
- c) Aseguru-hartzaileak dauka aseguratzaillearekin.**
- d) Onuradunak dauka aseguratzaillearekin.**

4. Xabier Basterretxeak 55 urte ditu eta abokatua da. Ezkondua dago eta bi seme-alaba ditu, Peru eta Klara, 16 eta 19 urtekoak hurrenez hurren.

Emaztea, Teresa Kobeaga, etxekoandrea da, eta beldur da Xabierri zerbait gertatuko ote zaion, gertaera horrek seme-alaben heziketan eragina izango bailuke.

Egoera konpontzeko, Mapfren lan egiten duen bere lagun Markosekin hitz egiten du, eta aseguru bat egiten du, isilpean, senarrak ezer jakin gabe.

Horrela, senarra zenduz gero (en caso de fallecimiento), seme-alabek urteko zenbateko bat jasoko lukete ikasketak bukatu arte.

Zera eskatzen da: zein dira aseguratzaillea, aseguruduna, aseguru-hartzailea eta onuraduna, aseguru-kontratu horretan?

5. Lapurreta egin dute Aitorren etxean, eta konturatzen da bere gauzen artean antzinako zilarrezko marko bat –gurasoen ezkontza-argazkiarekin– falta dela, 350 euroan balioztatua.

Aitorrentzako argazkiak, markoak baino balio handiagoa duen arren, aseguru-etxeak markoa soilik ordaintzen dio. Arrazoitu zer argudio ematen dituen aseguru-etxeak ezkontza-argazkiaren galera ez indemnitzatzeko.

6. Patxik bihotz-arazoak dauzka eta arrisku-kirolak egitea galarazten diote. Arriskua aseguragarria izateko ezaugarri batzuk eduki behar dituenek, alpinismoa egiten hilko balitz, horietako zein ez luke beteko?
7. Defini itzazu arriskua (riesgo), ezbeharra (siniestro) eta kalte-ordaina (indemnización), eta jarri bakoitzeko adibide bat.
8. Adelak eta Danelek etxebizitza bat erosi nahi dute elkarrekin bizitzeko. Etxebizitza biren artean erabaki ezinik daude (están indecisos entre 2 casa), baina bietako bat aukeratu behar dute etxe-asegurua egiteko. Aseguru-kontratua egiteko arriskua aseguragarria izan dadin (para que el riesgo sea asegurable), zer ezaugarri behartzen ditu erabakia hartzera?
9. Aipatu aseguru-poliza bat egiteko beharrezkoak diren agiriak.
10. Aire S.A. enpresak Seguros Lagun Aro, S.A.rekin aseguru-poliza bat kontratatu du. Poliza horrek Josu babesten du istripuak izateko arriskutik. Enpresak 285 euro ordaintzen dizkio urtero aseguru-etxeari. Josu etengabe bidaiatzen ari den zuzendari komertziala da, eta, istripuz hilko balitz, senideek 180.000 euroko kalte-ordaina kobratuko lukete. Adierazi zein diren elementu pertsonalak eta materialak aseguru-kontratu horretan.
11. Peioren etxebizitzak su hartu du. Peiok aseguru-etxeari ezbeharraren berri ematen dionean, galdutako tresnen artean, une horretan etxebizitzan ez zegoen ordenagailu eramangarria ere sartzen du. Peio, bere jokabidearekin, aseguru-kontratuaren zein ezaugarriaren aurka dago? Arrazoitu erantzuna.
12. Adolfok bizi-aseguru bat kontratatzen du Vidal aseguru-etxearekin. Hilko balitz, bere seme-alabek, Koldok eta Amaiak, 300.000 euroko kalte-ordaina jasoko lukete. Adolfok 272 euroko prima ordaintzen dio urtero aseguru-etxeari. Adierazi zein diren elementu materialak eta pertsonalak poliza horretan.

7. Aseguru motak

Aseguru pribatuak bi taldetan banatzen dira: aseguru pertsonalak eta kalteen aseguruak.

7.1 Pertsonen aseguruak edo aseguru pertsonalak

Asegurudunaren (del asegurado) existentzian, gorputz-segurtasunean edo osasunean eragina izan dezaketen arriskuak barne hartzen (incluyen) dituzten aseguru guztiak dira.

Kasu batzuetan pertsonen bizia, osasuna, etab. aseguratu nahi da, baina oso zaila da aseguratuak jasandako kalteagatik kalte-ordainaren (indemnización) balioespen (valoración) ekonomikoa objektiboki egitea.

Hori dela eta, aseguru mota horietan beharrezkoa da alde aurretik zenbateko bat hitzartzea. Zenbateko hori izango da polizan agertuko dena eta asegurudunak jasoko duena aseguratu den gertaera jazotzen denean.

Aseguru pertsonalak hauek dira:

- a) Bizi-aseguruak
- b) Istripu-aseguruak
- c) Gaixotasun-aseguruak

7.2 Kalteen aseguruak edo ondare-aseguruak (Seguros de daños o seguros patrimoniales)

Pertsonen etxebizitzetan, autoetan, enpresako makinetan, etab. eragina izan dezaketen arriskuak barne hartzen dituzten aseguru guztiak dira. Pertsonen ondarea, oro har, babesten dute.

Aseguru horiek ez dituzte estaltzen lurrikarek, uholdeek edo beste hondamen-egoerek sortutako kalteak.

Ondare-aseguruetan, kaltearen baliospena (valoración) kaltea sortzen den unean egin daiteke, eta, baliospenaren arabera, kalte-ordaina jasoko da. Aseguru-etxeak asegurudunak jasandako kaltea konpontzeko obligazioa dauka.

Honakoak izan daitezke ondare-aseguruak:

- a) Sute-aseguruak.
- b) Lapurreta-aseguruak.
- c) Erantzukizun zibileko aseguruak.
- d) Motor-ibilgailuen aseguruak.
- e) Etxebizitzako arrisku anitzeko aseguruak.
- f) ETEetako (enpresa txiki eta ertainetako) arrisku anitzeko aseguruak.

8. Bizi-asegurua (seguro de vida)

Bizi-aseguru kontratuan, aseguratzailleak konpromisoa hartzen du adostutako prestazioa ordaintzeko, polizan aurreikusitako egoera gertatzen denean, zeren eta gerta daiteken aseguruduna hiltzea data jakin baten aurretik, edo adin jakin batean bizirik egotea.

Bizi-aseguruak hainbat motatakoak izan daitezke, ohikoenak hauexek dira:

8.1 Bizi-asegurua heriotza, kasurako.

Aseguruduna hiltzen bada, onuradunak polizan agertzen den kalte-ordaina jasoko du; zenbateko finko bat edo aldizkako errenta bat ordainduko dio onuradunari.

Aseguru mota horrek aldaerak aurke ditzake:

- Gerta daiteke asegurudunak primak ordaintzea hiltzen den arte, eta une horretan onuradunak kalte-ordaina kobratzea.
- Beste aukera bat honakoa litzateke: asegurudunak primak ordaintzea aldeztu aurretik hitzartutako urte-kopuru batean, eta, hortik aurrera, asegurua indarrean egotea heriotza arte. Une horretan onuradunak kalte-ordaina kobratuko du.

8.2 Biziraupeneko bizi-asegurua. (Seguro de vida de supervivencia.)

Onuradunak (asegurudunak) polizan adierazitako kalte-ordaina kobratuko du, baldin eta aseguruduna adin jakin batean bizirik badago, erretiro adinean hain zuzen ere. Aseguratua adin horretara bizirik iristen ez bada, aseguru-etxeak ez du ordainduko. Kalte-ordaina diru-kopuru finkoa edo aldizkako errenta izan daiteke.

Erretiro-aseguruak edo aurrezki-aseguruak dira. Asegurudunak, denbora jakin batean, aldizkako ekarpenak egiten ditu funts batean. Kontratuan zehaztutako denbora igarotzen denean, funtsean bildutakoa berreskura dezake sortutako interesekin batera.

Biziraupeneko bizi-aseguruen taldean egongo lirateke **erretiro-planak** eta **pentsio-planak**. Pentsio-planek Gizarte Segurantzari ordaintzen zaizkion pentsioak osatzen dituzte.

8.3 Aseguru mistoak.

Aurreko biak batzen ditugu aseguru batean; heriotza eta data jakin batera arteko bizirautea estaltzen ditu. Asegurudunak, kalte-ordaina kobratu ahal izateko, heriotza-arriskua eta erretiro-adinean bizirautea babestu nahi ditu.

9. Istripu-asegurua

Istripu-aseguruak asegurudunari kalte-ordaina bermatzen (garantizar) dio, istripu batean sortutako zenbait arrisku pertsonal estaltzeko. Istripuetako zergatiak ustekabekoak, bortitzak eta asegurudunaren kontrolatik kanpo daudenak izaten dira.

Istripua ustekabekoa izan behar da, hots, asegurdunak edo onuradunak ezin du nahita eragin, ezta alkoholak edo drogek eragindako apustu edo erronken ondorio izan.

Istripu-aseguruak honako estaldura hauek izaten dituzte:

9.1 Heriotza.

Kalte-ordaina ordainduko da heriotza istripu baten ondorioz gertatzen denean; kasu horretan, bi urteren buruan polizan adostutako kapitala ordainduko zaie asegurdunaren onuradunei.

9.2 Ezintasun iraunkorra.

Kalte-ordaina ordainduko da ezintasun iraunkorra istripu baten ondorioz gertatzen denean; hori gertatzen bada, bi urteren buruan polizan hitzartutako kapitala ordainduko zaio asegurdunari. Ordainduko den kapitala ezintasun mailaren arabera izango da polizan agertzen diren taulen arabera, hain zuzen ere.

9.3 Aldi-baterako ezintasuna.

Istripu baten ondorioz asegurdunak bere ohiko jardura egiterik ez badauka, guztiz edo zati batean, aseguru-erakundeak asegurdunari, bi urteren buruan asko jota, ordaindu beharko dio polizan zehaztutako zenbatekoa.

9.4 Osasun-laguntza.

Aseguru-erakundeak estaliko ditu asegurdunak –istripu baten ondorioz– guztiz sendatu arte behar dituen osasun-gastuak, polizan adierazten diren mugak eta baldintzak kontuan hartuta.

10. Gaixotasun-asegurua

Aseguru-erakundeak, asegurduna gaixotzen bada, asegurdunari ordaintzeko konpromisoa hartzen du, polizan adierazten den gehieneko kantitatea arte. Beharrezkoa da gaixotasuna sendagileak diagnostikatzea. Gaixotasuna ezin daiteke izan istripu baten ondorioa, edo zahartzeak edo aseguratuak berak eragindakoa.

Gaixotasun-aseguruaren helburua diru-sarreraren galera estaltzea da, asegurdunak lan egiteko gaitasuna galtzen duenean. Lanik egiten ez duen egun bakoitzeko zenbateko bat kobratuko du, betiere polizan adierazten diren diru-mugen artean.

Gaixotasun-aseguruak estaltzen dituen oinarritzko bermeak hauek dira:

- Kalte-ordaina, ebakuntza kirurgikoagatik.
- Ospitalizazioa.

11. Sute-asegurua

Kalteen aseguru edo ondare-asegurua da. Sute-aseguruaren xedea aseguraturako ondasunetan suteak eragindako kalteak konpentsatzea da. Ondasunak etxebizitza edo enpresa batekoak izan daitezke.

Aseguru horrek ez ditu estaliko balore higigarriak, efektu komertzialak, harribitxi edo metal preziatuak.

Ez du kalte-ordainik emango sutea asegurudunak berak eragindakoa bada.

12. Lapurreta-asegurua

Lapurreta-aseguruak behartzen du aseguru-erakundea kalte-ordaina ematera, aseguraturako gauzak hirugarren pertsonen legez kontra lapurtzen dituztenean. Delitua egitean sortutako kalteak ordaintzera ere behartua dago.

Behin kalte-ordaina ordainduta lapurtutako gauzak berreskuratuko balira, asegurudunak erabaki lezake kalte-ordainarekin gelditzea eta gauzei uko egitea, edo bueltatutako gauzengatik kalte-ordaina itzuli eta gauzak berreskuratzea.

13. Erantzukizun zibileko aseguru

Eguneroko bizitzan pertsona, enpresa edo administrazio-publiko batek hirugarren bati kalte egin diezaioke nahi gabe. Adibidez, leihotik loreontzi bat jauzi, eta oinezko bat zauritu dezake, edo etxebizitza bateko eskailera eraits daiteke pertsonen kalteak eraginez.

Kasu horietan, kaltetuak bere kasua auzitara eramango balu eta auzitegiak arrazoia emango balio, jabea sortutako kaltearen erantzulea izango litzateke –kasu batzuetan zenbateko handiak ordainduz– eta arazo ekonomiko izugarria edukiko luke. Egoera hori saihesteko kontratatzen da **erantzukizun zibileko aseguru**.

Aseguru horrek erantzukizun zibila estaltzen du; aseguru-erakundeak hirugarren bati eragindako kalteak konpontzeko betebeharra dauka, aseguruduna gertakariaren erantzule zibila den kasuan.

Hona hemen erantzukizun zibileko polizak dauzkaten bermeak:

- Epai-bermeak.
- Asegurudunaren babes juridikorako gastuak, erantzukizun zibilaren ondorioz sortutakoak.
- Hirugarren batzuei ordaintzen zaizkien kalte-ordainak.

14. Motor-ibilgailuen aseguru

Aseguru horren bidez, aseguru-erakundea behartuta dago ibilgailuek eragindako istripuetatik sortzen diren kalte materialen ordaina ematera. Aseguru bi motatakoa izan daiteke: **ibilgailuen nahitaezko aseguru** eta **ibilgailuen borondatezko aseguru**.

14.1 Ibilgailuen nahitaezko aseguru

Ibilgailu bat gidatzea arriskutsua da gidariarentzat, bidaiariarentzat eta baita hirugarrenentzat ere. Gainera, denen ondarea arriskuan jar dezake. Istripu bat gertatzen bada, ordaindu behar diren

kalteak ugari izan daitezke, eta sarritan ibilgailuaren jabeak ez dauka ondare nahikorik edo kaudimenik ordainketari aurre egiteko. Arriskua dago kaltea ordaintzera behartuta dagoen pertsona kaudimengabea izatea. Hori dela eta, beharrezkoa da **Ibilgailuen nahitaezko aseguria** edukitzea.

Ibilgailuen nahitaezko aseguruak hauek estaltzen ditu: aseguratutako ibilgailuko gidariak hirugarren pertsonen gorputzean eragindako kalteak eta kalte materialak.

Ez ditu estaltzen:

- Gidariari eragindako kalteak, gorputzean eragindakoak eta materialak.
- Ibilgailua lapurtutakoa bada, hirugarren batzuei eragindakoak.
- Gidariak eragindako kalteak, edari alkoholodun edo drogen eraginpean gidatzearen ondorioz izan badira.

Ibilgailuak asegururik ez badu, lapurtua edo ezezaguna bada, kalte-ordaina **Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoak** ordainduko du; kalte-ordaina emango die kaltea jasan dutenei.

14.2 Ibilgailuen borondatezko aseguria

Nahitaezko aseguruak estaltzen ez dituen arriskuak estaltzeko erabiltzen da; nahitaezko aseguruak muga bat ezartzen du hirugarrenei emandako kalte-ordainetan, eta ez ditu estaltzen gidariaren arriskuak. Aseguru hau nahitaezko aseguruaren osagarria bihurtzen da.

Hona hemen ibilgailuen borondatezko aseguruaren bidez kontrata ditzakegun estaldurak:

- Borondatezko erantzukizun zibila: erantzukizun zibilaren estaldura handitu egiten da (normalean mugarik gabekoa izaten da).
- Defentsa penala eta erreklamazioak: aseguratuaren defentsa, bide penalean, zehapen pertsonalaren ondorio ez diren abokatu, prokuradore eta bestelakoen gastuak.
- Aseguratutako ibilgailuak jasandako kalteak: ibilgailuak jasaten dituen kalte guztiak sartzen dira, hirugarrenetik erantzukizunaz aparte.
- Bidaia-asegurua.
- Lapurreta: ibilgailua lapurtzen zaion pertsonari kalte-ordaina ematen zaio.
- Berme osagarriak: sutea, beiren hausturak, bidaiako laguntza...
- Arrisku orotarako aseguria: aurreko estaldura guztiak barne hartzen ditu
- Etab.

15. Etxebizitzako arrisku anitzeko aseguria

Etxebizitzak asegu daitezke gerta daitezkeen arriskuak estaltzeko; adibidez, lapurreta bat, sutea, erantzukizun zibila, etab. Beste aukera bat litzateke, arrisku bat baino gehiago estaltzeko aseguru bat bilatzea, hots, **etxebizitzako arrisku anitzeko aseguria**. Aseguru horrek etxebizitza bateko jabeak indemnitzatuko lituzke, ezbeharraren ordain gisa.

Etxebizitzan gerta daitezkeen kalteak konpontzeko, aseguru horrek bitan banatzen ditu bermatu beharreko ondasunak: **edukitzailea** eta **edukia**.

Edukitzailea. (CONTINENTE) Eraikina (egitura, zimenduak, sabaia, paretak, zoruak, ateak eta leihoak) eta eraikinaren eranskina (trastelekua, garajea) biltzen ditu. Horretan beste hainbat elementu finko ere izaten dira: antenak, instalazio-teknikoak, hesiak, etab.

Edukian (CONTENIDO) biltzen da etxean dagoen guztia: arropa, altzariak, tresneria eta era guztietako gauzak.

Edukizalea nola tasatuko den kalkulatzea zaila denez, orokorrean etxebizitzaren berreraikuntzaren kostuaren arabera egiten da. Edukia balioztatzea zailagoa da; beraz, guztiak duen balioa adierazi egin behar da, ezbeharrik izanez gero, berriak ekarri edo zaharrak konpontzeko.

Etxebizitzako arrisku anitzeko aseguruak estaltzen ditu oinarritzko berme batzuk:

- Urak eragindako kalteak. Matxura aurkitzeak eta konpontzeak eragindako gastuak ere bere gain hartuko ditu aseguru-etxeak.
- Suteak, ezlandak eta tximistak eragindako kalte materialak.
- Erantzukizun zibila. Adibidez, etxebizitzako hoditeria apurtzean hirugarrenei eragiten zaizkien kalteak.
- Lapurretaren edo ebasketaren ondorioz ostutako ondasun aseguratuaren balioa bermatzen da.

Oinarritzko estaldura horiei beste estaldura osagarri batzuk erantsen zaizkie: istripua, heriotza, etxetik kanpo gertatutako lapurreak eta etxeko animaliek eragindako kalteak, besteen artean.

Badago eraikin bat aseguratzeko beste arrisku anitzeko aseguru mota bat ere, etxebizitzaren komunitate batek osatutakoa. Etxebizitza baten arrisku anitzeko aseguruaren antzekoa da, eta aseguru-primak etxebizitzetako jabe guztiek ordaintzen dituzte.

Bukatzeko, pisua ordaintzeko hipoteka-mailegua eskatzen bada, bankuak mota horretako aseguru bat kontratatzea behartzen zaitu, eta edukizalea edo etxebizitzaren balioa maileguarekin bat etortzen da. Aseguruaren onuraduna bankua izaten da.

ARIKETAK

13. Zenbat taldetan banatzen dira aseguru pribatuak?

14. Onuradunak jasoko duen kalte-ordaina, zein motatako aseguruetan adosten da?

15. Zein aseguru-poliza sinatzea gomendatuko zenioke aita bati, honako egoera hauetan?

- a) Erosi berri duen autoak istripu batean jasan ditzakeen kalteak estaltzeko.
- b) Etxebizitzako hoditeria (tubería) apurtzean auzokoari sortutako kalteak estaltzeko.
- c) Aita hiltzen bada familiaren egoera ekonomikoa babesteko.
- d) Erretiroak sor ditzakeen diru-sarreraren galera estaltzeko.

16. Adelak zazpi urteko semea dauka. Egun batean etxeko terrazan jolasten ari dela, semeak loreontzi bat bota, eta bertatik pasatzen ari den lagun bat buruan jo du. Gertakari horrek lagun horri lesioak eragiten dizkio eta laneko baja hartu behar du hilabete batean. Lagun horrek gertakaria salatzen du, eta gurasoek ezbeharrik eragindako mediku- eta ospitale-

kostuak ordaindu behar dituzte. Laneko bajaran dagoen denboran jasandako diru-sarrera galerari ere aurre egin beharko diote.

Aztertu gastu horiek zein aseguru motak estaltzen dituen.

- 17. Jonek erretiro-plan bat dauka, baina une ekonomiko latza igarotzen ari da eta ezin du diru-ekarpenik egin.**
 - a) Ekarpenik egin ezean erretiro-plana gal dezake?**
 - b) Erretiro-plana berreskura dezake?**
- 18. Auto-istripu bat gertatzen da eta gidariak ez du segururik, zein erakundek indemnizatuko d(it)u kaltetua(k)?**
- 19. Istripua eragiten duen ibilgailuan sortutako kalteak:**
 - a) Ibilgailuen nahitaezko aseguruak estaliko ditu.**
 - b) Ibilgailuen borondatezko aseguruak estaliko ditu.**
- 20. Bi ibilgailuren arteko talkak ibilgailu bietan kalteak eragin ditu. Erruduna Asier da eta arrisku orotarako asegurua dauka. Zer ordainduko du Asierren aseguru-etxeak?**
- 21. Etxebizitzaren berreraikuntzaren balioa etxeko aseguruaren berme bat da eta:**
 - a) Edukitzaileari eragiten dio.**
 - b) Edukiari eragiten dio.**
- 22. Martak etxeko aseguru bat dauka, baina horrek soilik edukitzailea estaltzen du. Etxean sute bat gertatzen da eta sukaldeko tresneria hondatzen da. Ordainduko ditu aseguru-etxeak tresneriaren berritze-gastuak? Zergatik?**